

Ibañez de la Renteria leinua

Aitor Iturbe



1. PEDRO IBAÑEZ RENTERIA ETA CATALINA GABIOLA
2. MARIA PEREZ ALDAI ETA MARTIN PEREZ HORMAEGUI
3. LUCIA ARTEITA ETA FRANCISCO IBARRA
4. PEDRO IBAÑEZ RENTERIA ETA JUANA ORTIZ XX?
5. MARIA PEREZ ALDAY ETA PASCUAL HORMAEGUI
6. PEDRO HORMAEGUI RENTERIA
7. PASCUAL HORMAEGUI ETA CATALINA LONQUIZ ALDASOLO
8. JUAN BAUTISTA RENTERIA ETA MARIA GARCIA ESUNETA
9. PEDRO IBAÑEZ RENTERIA ETA MARINA SAEZ MONTIANO
10. JOSE AGUSTIN IBAÑEZ RENTERIA ETA MARIANA BASTERRECHEA BEINGOOLEA
11. JOSE VICENTE RENTERIA ETA JOSEFA BEINGOLEA
12. JOSE AGUSTIN IBAÑEZ DE LA RENTERIA ETA MARIA VENTURA URIBARRI
13. ANTONIO IBAÑEZ DE LA RENTERIA ETA PRUDENCIA URQUIJO TERREROS
14. SOR MARIA DOLORES DE LA PURIFICACIÓN

OHARRA

Jaiotza, heriotza eta ezkontza datak jakiteko modu ezberdinak erabili ditugu: gehienetan beste batzuegandik lortu ditugu, ganorazko Elizako dokumentuetan oinarrituta egongo direlakoan –Jainkoa, erre gutu ezazu gu bekatarien alde– eta beste batzuetan geuk aurkitutako testigantzak erabili ditugu. Zertuk dira testigantzak? Ba, batzuetan auzi eta gainerakoetan, testiguak agertzen zirenetan, jakina, testiguok adina aitortzen zuten. Testigantzok –eta zortea ezinbestekoak izan dira lehen belaunaldietarako, Elizak Trento aurretik ez baitzuten jaiotzak (ez eta heriotzak eta ezkontzak) apuntatzen. Bakar batean hurbildu egin ditugu datak kronologia osoena lortzeko asmoz. Halandabe, ahaleginak ahalegin, akatsak izango ditu; barkatzea eta, batez ere, zuzentzea eskertuko genizueke lantxo hau ez da behin betikoa eta. Amaitzeko kontuan izan belaunaldiak barik etxe edo leinuko buruak aukeratu ditugula.

Familia gutxi egon dira Lekeition horien ospearekin, baina “ospe ta aintza guztia gizaldi ta gizaldi guztietan...” Jainkoari bakarrik dagokio. 500 urtez –edo gehiago–, erraz esaten da, Lekeitioko handienetarikoa izan zen dinastia halako batean desagertu egin zen. Horregatik ezbarren ale honetara ekarri nahi izan ditugu aberatsek ere negar egiten duten eredu legez, zoria, zoriona eta zoritxarra, goikoaren eskuetan bakarrik dagoelako.

Hastapenetan eta amaieran jarriko dugu arreta beste momentuak Celina Ribechini historialariak ederto batu baitzituen bere liburuan "La ilustración en Vizcaya. "El Lequeitiáno" Ibañez de la Rentería".

Bagenekien Celinak kontatuta Pedro Ibañez Renteriarekin hasi zela familia honen aieratzea Bilbora egin zuenean. Eta hala izan zen, baina izan zituen familiak aurreko mendeetan ere garai prosperoak. Norekin? Ba beste Pedro Ibañez Rentería batekin, "BENETA-KOAREKIN". Hurrengoak, ohikoa zenez, izen horri atxikitu ziren.

1- Pedro Ibañez de la Rentería eta Catalina Gabiola

(Jaio 1442 (T), hil xxx)

Hauexekin hasiko gara atzerago joatea area mugikorretan ibiltzea baita. Auzi batean testigu modura agertzen zaigu Pedro eta bi oinarritzko datu jakingo ditugu, adina eta arrebaren izena. 1502ko auzi horretan 60 urte zituen, beraz 1442 aldean jaioa, eta Marina Iñiguez Cerangaren neba zen, beraz Nicolas Ibañez Arreitaren benetako koinatua. Biak merkatariak, biak aberats handiak. Ez da harritzekoa kapera berria altxatu izana Lekeitioko Eliza nagusian.

Ez zuen nahi izan bere alaba Maria Perez Alday Yarzatar batekin ezkontzea, indarra zuen seinale. Herritarra nahiago izan zuen, Martin Perez Hormaegui eskribaua, bere alabarentzat. 1484an Lope Garcia Yarzatarrek ingeles erara, hau da bahituta, ezkondu nahi izan zuen Maria Perezekin, baina orduko hartan euren tamainakoarekin topatu ziren Yarzatarrek: "*que no es su voluntad nin de la dicha su muger de desposar a la dicha su fija con semeiante onbre, quel dicho Lope Garçia, por ser como es de parentela e vando e hermano del dicho Rodrigo Adan, porque casandole con el non seria señor de su fasienda e que la queria casar con onbre ruano de su suerte e manera, segund dis que tienen conçertado e asentado el casamiento de la dicha su fija con Martin Peres d'Ormaegui, nuestro escriuano*".

Konturatuko zineten alabaren abizena Alday zela, ez aitarena, ez amarena, baina Rentería abizenarekin ere agertuko da. Abizena –eta izena– aitarena, amarena, izeko batena, aitita edo amonarena izan zezakeen eta, hori gutxi balitz, gainera zirkunstanzien komenentziara aldatzen zen.

2- Maria Perez Aldai eta Martin Perez Hormaegi
(Jaio 1465 (T), hil 1521?)

Ez zuten familiarik izan (izatekotan, gurasoak baino lehenago hilko ziren), beraz izekok bere iloba bat aukeratu zuen, Lucia Arteita. Maria Perez, Maria Meceta Uriarte dorrekoaren odoleko lehengusina zen. Mariak ez zuen ondorengorik izan, baina senarrak bai, ezkondu baino lehenago, noski, Marco Perez Hormaegui, baina ez zen odolekoa. Ohikoa zenez, Luciaren alaba Catalinarekin ezkontzea pentsatu zuten, baina ez zen hala izan.

3- Lucia Arteita eta Francisco Ibarra
(Jaio 1495 aldean (H), hil 1524)

1495 aldean jaio zela uste dugu bere ahizpa Catalina Martinez Arteita 1493 aldean jaio zelako eta gazteagoa zelakoan gaudelako. Maria Meceta Arreitarraren eta Uriarte dorreko Juan Perez Landaren alaba zen.

Francisco Ibarra ondarrutarrarekin ezkondu zen eta bikotea zapran zegoen izekok oinordeko aukeratu zituenean, baina zoritxarra zegoen zain. 1524an izurriak jota hil ziren. Lekeitioko Apalluako etxe ederra utzita Ipidegi baserrira alde egin zuten, baina berandu!

Lucia eta Francisco gazte hil ziren, baina lau seme-alaba izan zituzten: Pedro nagusia, Juan Perez, Catalina Gabiola eta Maria Perez Alday. Gorriak ikusi zituzten, baina familiak aurrera egin zuen.

4- Pedro Ibañez de la Rentería eta Juana Ortiz Elancho?
(Jaio 1519 (T), hil xxx)

Andaluzian hazi ziren anaiak, Pedro eta Juan, eta Pedro, behintzat, Lekeitiora bueltatu zen bere ondasunetarako. Inoiz izan zen alkate (1555, 1560, 1566) edo errejido-re (1552). Seme-alaba naturalen bat eta guk dakigula bi edo hiru legezko seme-alaba izan zituen: Maria Perez Alday oinordekoa, Juan Bautista Rentería eta Cosme Rentería. Azken hau Indietan hil zen, baina ez dakigu legitimoa zenetz. Kontua da Cosmeren ama Maria Ortiz

Elancho zela eta Juan Bautistarena Joana Urtiz delako bat. Emakume berbera? Horiek horrela, konturatuko zineten gurasoek Maria Perez aukeratu zutela oinordeko, anaien gainetik. Ba, horrelaxe egiten zen komeni zen guztietan, Yarzatarrek ere hala egin zuten.

5- Maria Perez Aldai eta Pascual Hormaegi
(Jaio 1560ak (H), ezkondu 1580 aldean (H) eta 1600 aldean (H), hil 1608)

Bikote honek bi seme izan zituen: Pedro Hormaegui Rentería oinordekoa eta Pascual Hormaegui. Gazte hil zen bi horien aita (1590ean) eta osaba Juan Bautista izan zen horien kuradore eta, zelan ez, zaintza edo "kuraduria" horretan arazo bat baino gehiago izango zuten. Ama berrito ezkondu zen Francisco Endaidi kapitainarekin biak alargun zirela, baina ez zuten seme-alabarik izan. Endaidi odola, beraz, haizeak eraman zuen.

6- Pedro Hormaegi Rentería
(Jaio 1583, hil xxx)

Dakigun bakarra da Indietatik zebilela eta dirudienez ez zen sekula bueltatu Lekeitiora. Han hilko zen (berrito diot usteak direla) eta bere anaia gaztea geldituko zen haren zatiarekin. Indietan gertatzen zena herrira berandu heltzen zen eta askotan desitxuratuta. Askotan etxekoek ere ez zekiten hilda ala bizirik jarraitzen zuten hara joandakoak. Esan behar dugu nagusiak amaren zatia heredatu zuela eta gazteak aitarena. Pascual Hormaeguiaren 1590eko testamentuan agertzen zen: "*... que en las cassas de la rreneria desta dicha villa que son en la calle de apallua della xx y sea de dicho pedro de hormaegui y rreneria su hijo juntamente con los demas bienes muebles y rraizes derechos y aciones y pertenecidos de la dicha casa de rreneria asi en los vienes que ay en la juridicion desta dicha villa como en los bienes que la dicha cassa tiene en la tierra llana...*".

7- Pascual Hormaegi eta Catalina Loniquiz Aldasolo
(Jaio 1590, ezkondu 1609, hil xxx)

Pascual gaztea aitaren ondasunekin gelditu zen, baina 1609an ezkontzara ez zituen ondasun horiek bakarrik eraman, anaiaren ondasunen gaineko eskubideak gehitu zizkion "*el dho Pasqual se dota de las casas que fueron de Pasqual su padre cuyos linderos son notorios*

con todas las entradas y salidas e ayres y bodegas con todo lo que en la dha bodega se alla y de la misma manera del derecho que tiene e adelante podra tener de la casa y torre de la renteria que fueron de la dicha Doña Maria perez con todo lo aderente y perteneciente a ellas como son la capilla que tiene sin concurrencia de persona alguna en la yglesia matriz de la dha villa y las caserías de ypedegui cecermendi y gaviolera con todos sus pertenecidos con mas el axuar y bastago y todo lo demas que por el xxx de la dicha Doña Maria esta declarado y asentado...”.

Bikote honek ere zorte txarra izan zuen. Badirudi emaztea umea izan eta gutxira hil zela eta alabatxoa ere laster hil zela. Aitak jarraitu zion handik gutxira. Egia esan ez dakit ehuneko ehunean inoiz leinu edo dinastia honetako buru izatera heldu zen. Uste dut baietz osaba Juan Bautista, Pascualen –eta ez Pedoren- oinordeko legez agertzen delako 1619ko dokumentu batean.

8- Juan Bautista de la Renteria eta Maria Garcia Esuneta

(Jaio 1566, ezkondu 1607, hil XXX)

Azkenean, aurreikuspen guztien kontra, osaba ondasun guztiak geratu zen ondorengo barik hil zirelako Pedro eta Pascual. 1614-19 artean gertatu zen hori, antza. Gutxi iraun zion pozak osabari, baina bere seme-alabak izango ziren aurrerantzean dinastiaren buru. Hona hemen zertarako balio zuen familia “handiak”, osabak “salbatu” behar izan zuen abizena.

Badakigu alkatea izan zela 1607, 1610, 1616, eta 1619an, seinale familiak bazuena garrantzia.

Bere emaztea interesatzen zaigu, Maria Garcia Esuneta. 1597an hil zen Hernan Perez Yarza abadea izurriak jota eta testamentuan oinordeko modura Maria Garcia Yarza, bere “emaztea”, aukeratu zuen eta haren faltan bien iloba Maria Garcia Esuneta (izena agertu ez arren). Ez da batere arraroa azaltzen ari garena, abadeek –batzuk, noski– seme-alabak izaten zituzten eta batzuetan abadeak familia onekoak zirenean ondo ezkontzen zituzten seme-alabak. Esunetako Juan Ochoari ez zitzaion ardura izan Maria San Juan Yarza emaztearen jatorria harekin ezkondu zenean. Azken finean aita Bengoleatarra zen eta gainera doktorea eta aberatsa. Adierazgarria da Juan Bautistak eta Maria Garciak euren lehen? semeari Hernan Perez deitzea

(1612-6-11n jaioa). Hernan Perez Yarza abadeak utzi zituen ondasun oparoen artean Zabalekua “dorrea” zegoen.

9- Pedro Ibañez de la Renteria eta Marina Saez Montiano

(Jaio 1614, ezkondu 1650, hil 1673)

Hainbat seme-alaba izan zituzten, nagusia Agustin 1650ean jaioa. Ez ziren falta izan Juan Bautista eta Pedro izenak euren artean. Portzierto Jose Antonio seme abadea aipatu izan dugu, “Luz Concionaria...” eta halakoak idatzi zituelako. Izurriaren artikuluan egur apur bat eman diogu, baina Jaurerriko kronista ofizial aukeratu bazuten balioko eta mereziko zuelako izango zen. Badirudi familiak erakutsiko zuen historia zaletasuna honengandik zetorrela.

Pedro honekin eman zuen benetako jautzia familiak. Basterretxea-Beingoleatarrekin ezkontza bikoitza antolatuta zuen: Jose Agustin Ibañez Renteria oinordekoa Mariana Basterretxearekin ezkonduko zen eta Agustin Basterretxea oinordekoa Maria Josefa Ibañez de la Renteriarekin, hala adostu eta agindu zutelako Pedro Ibañez Renteriak eta Pedro Basterretxea kapitainak ordurako biak hilda egon arren.

10- Jose Agustin Ibañez de la Renteria eta Mariana Basterrechea Beingoolea

(Jaio 1650, ezkondu 1676, hil 1726)

Hainbat seme-alaba izan zituzten arren, neskek eta neba gazteenak bakarrik egin zuten aurrera. Jose Vicente 1699an jaio zen eta gutxienez zazpi aurretik zituen arren bera izan zen oinordeko, ez aitak hala agindu zuelako, Marina aukeratuak eta beste ahizpek hala nahi izan zutelako baino. Errejidore lautan, bigarren alkate seitan, beste seitan lehenengo alkate, Jaurerriko Diputatu nagusi ere izan zen. Kargu eta ohore guzti horiei “itsasoko lantzak” gehitu nahi izan zizkion.

11- Jose Vicente Ibañez de la Renteria eta Maria Josefa Ordeñana Goxenechea

(Jaio 1699, ezkondu 1733 eta 1750, hil 1760)

Lehenengo emaztea, Josefa Beingolea, sabelondoz hil zen eta euren alaba hamasei urterekin hil zenean, berriro ezkondu zen emakumearekin hiru seme izan zituen Jose Vicentek: Jose Agustin, Juan Francisco eta Juan Luis. Aitaren moduan Lekeition Nautikako klaseak eman zituen herritarren mesederako eta 1738an “Explicación del círculo astronómico

universal y nuevamente ampliado” idatzi zuen. Geroago, armadan kapitain bezala zerbitu ondoren, 1747an Historiako Errege Akademiako ohorezko kide izendatu zuten. Historia gustuko zuen familia zen, seme Agustin Jaurerriko historialari ofiziala izendatuko zuten.

Hau ere politikan aritu zen: Diputatu Nagusi 1752an, Lekeitioko alkate 1727, 1752, 1756an (gutxienez)... Familiak gero eta indar eta pisu gehiago zuen. Basterretxeatarren maiorazgoarekin egiteak lagundu zien. Agustin Basterretxea Josefa Ibañez de la Renteria Montianorekin ezkondu zenean 1683an Basterretxeatarren maiorazgoa sortu zuten. Hainbat seme-alaba izan zituzten, baina 1759an Francisca Ignacia gazteena hil zenean ez zen gelditzen inor. Maiorazgoko bigarren aukera Mariana Basterretxea eta bere ondorengoak ziren, baina Pedro Maria Unceta Iturraspe ez zegoen konforme Maria Teresa Basterretxea Ibañez de la Renteriak bere lehengusina Maria Ignacia Iturraspe Basterretxeari, bere amari, eman ziolako. TXOKOLATEA! Egizue kontu, besteak beste, eliza aurreko jauregi dotorea zegoela lehian. Preseski, horixe bera izan zen Ordeñana alargunak aukeratu izan zuena bere azken urteak igaroteko.

12- Jose Agustin Ibañez de la Renteria eta Maria Ventura Uribarri

(Jaio 1751, ezkondu 1775, hil 1826)

Ordurako Renteriatarrak hainbat ondasunen jabe ziren: Yarza, Basterretxea eta Renteria binkuluak, gehi Marina Rosa, Jose Vicente eta haren alargunaren ondasun libreak. Intelektualki, baimentzen badiguzue hitza, Renteriatarretatik interesgarriena da. Ribechinik sakon aztertu zuen bere tesian eta geuk ere, Ribechiniren laguntzaz, apurtxo bat Kurik Iean. Esan gabe doa Ilustrazioko semea zela, literaturan, filosofian eta historian aditua.

13- Antonio Ibañez de la Renteria eta Prudencia Urquijo Terreros

(Jaio 1789, ezkondu xxx, hil 1859)


Honen bizitza aurrekoena baino askoz apalagoa izan zen. Ez dirudi bizitza publikoa edo politikoa gogoko zuenik. Ez zuen apenas parte hartu Lekeitioko politikan. Karlista zelako?

Zoritxarrak jota gizonezko guztiak hil ziren: Pedro Celestino 1827an jaio eta 1857an hil, Cipriano 1829an jaio eta 1854an hil, Roman Ignacio 1832an jaio eta 1833an hil. Maria Dolores bakarrik geratzen zen.

14- Sor Maria Dolores de la Purificación (Jaio 1837, hil 1928)

1837-04-13an jaio zen M^a Dolores Filomena Victoria Markinan eta 1869an ama hil zenean gelditzen zen Renteriatar bakarra zen. Oraindik ez zen moja, hiru urte beranduago sartu zen Dominiketan (27 urtetan Dominiken Nagusia izan zen). 1928an hil zen 91 urtekin.

Maria Dolores Filomena Victoria de la Purificación Ibáñez de la Rentería Urquijo.



Lekeitioko Andra Mari Zeruratzearen elizako San Gregorio kaperako Pasioaren erretaula flamenkoko eszena, c. 1500


DORREA ETA KAPERERA

Maria Doloresek abizen eta ondasun guztiei uko egin zizkion. Halan joan ziren pikutara dorrea eta kaperera!

Hango baserrikoak gara edo ginen erabiltzen zen, behin eta berriro, kaperatasun frogetan, egia izan ala ez (casa solar infanzona). Kontua da bizkaitarra izatea nahikoa zela noblezia frogatzeko, horregatik ziren denak baserri edo oinetxe jakin batekoak "vizcaino originario". Jatorria zen, arraza eta sinesmenarekin batera, nobleziaren ikurra. Baina ez gaitez an gainatu, batzuk besteak baino gehiago ziren. Hiribilduetan familiaren indarra eta nagusitasuna dorretxe eta kapera pribatuen bitartez erakusten zen, besteak beste.

Gure Renteriatarrek ere leinuetxea zen dorrea izan zuten Apaltoa kalean, gaur egun Arritxu "Piedrecita" taberna dagoen lekuan. Hacendera delakoan etxe ederra zen (4.000 mrs ordaintzen zuena), baina ez zuten dorretzat, gero bai (Primeramente la casa y torre y solar de la Rentería). 1595eko sutean erre zen eta segituan altxatu zuten berriro. Maria Perez Aldai alarguna arduratu zen horretaz, baina laster ezkondu zen Francisco Endaidi kapitainarekin eta bien artean amaitu zuten obra. Auzi batean aurkitu ditugu etxe horren berreraikitzearen gorabeherak eta badirudi Endaiditarrek ez zuela familia horretan arrastorik utzi. Armarridun etxea eraiki zuten testigu batek dioskun modura: "... bio como un escultor natural de la anteyglessia de Gautiguiz labro las harmas que estaban puestas en la dicha casa de la Rentería con horden y boluntad de los dichos Francisco de Endaydi y doña Maria Perez de la Rentería y a vista de ambos bio otra bes que se borraron y quitaron las armas del apellido del dicho Francisco de Endaydi a vista y sabiduria suya". Denboraren —eta zirkunstanzien— poderioz bizitzeko beste etxeren bat nahiago izan zuten arren, beti izan zen Renteriatarren jatorrizko oinetxea. Hipolito Zabaletak erosi eta bota zuen dorrea eta Udalak utzi. Tentelak makalak! LUA Akta liburuak 1885-9-17: "una solicitud de Don Hipolito Zabaleta... le autorizo... para que procediese a la demolicion de la casa de su propiedad n^o 1 de la calle Apaltoa y consecuentemente a su reedificacion con arreglo al plano...". Esan behar dugu Eliza aurreko Basterretxeatarren etxe nagusia (gaur egun Arostegitarrena) eta Ateako Zabalekua (gaur egun Mertzedariona) eurenak izan zirela. Bazuten non aukeratu!

Kapera eraikitzea ere gutxi batzuen esku zegoen. Santa Maria elizan garai hartan bi kapera pribatu bakarrik zabaldu ziren 1500 bueltan: Pedro Ibáñez Renteriaren San Gregorio kapera eta Martin Martinez Atxaren Santa Ana kapera. Mende bat beranduagokoa da Otxoa Urkizaren Anuntziazioko kapera. Kapera honek ere dorretxearen amaiera bera izan zuen, Paskual Abaroaren eraberritze lanetan desagertu zelako. Batzuetan kalterik handienak asmorik onenekin egiten dira! Pentsatzen da gaur egun Santa Ana kaperan dagoen Pasioaren erretaula flamenkoko Renteriatarra zela. Ez zen kapera musu-truk eman: "... pactaron primeramente con el Sr. Vicario del Convento de las Dominicas representacion de la Sra. Profesa D^a Dolores de Rentería el modo de realizar la cesion de la capilla de propiedad de esta señora, cuya demolicion, para prolongar el portico, esta trazada en los planos, conviniendo en que mediante a la renuncia de su derecho, el Ayuntamiento se obligaba a ceder en favor de la Comunidad los muy ventilables derechos que pudiera invocar a la posesion, fundada en la prescripcion del campillo que esta enfrente de dicho Convento y a indemnizarle con 1.000 ptas. destinados a hacer una empalizada en derredor de dicho campillo que impidiera la entrada por la noche..." LUA Akta liburuak, 1881-4-28. Ez gaitu kontsolatzen, baina igual Longarena uste den elizapea salbatu zuen kaperak. Igual esan dugu.



27. ontzia: Alcion, Joseph de la Renteria kapitain, 56 kainoi, 600 gizon

Merituak

Martin Perez Likona, Likona dorrekoa, gizoneko ondorengo barik hil zenean haren "itsasoko lantzak" libre geratu ziren. Ohore handia zenez, hainbat familiek, euren artean Renteriatarrak, eskatu zioten erregeari fabore hori: "... que el dicho Don Agustin Ybañez de la Renteria y sus pasados han servido a su Magestad por haver oydo al bachiller Don Francisco de Arriaga Hormaegui presbitero y a otros que en la ocasion que ingleses se apoderaron de la ciudad de Portobelo y sus castillos hallandose el dicho Don Agustin en la ciudad de Lima en el reyno de Peru, bajo al socorro de dicha ciudad habiendo sentado plaza de soldado en la conpañia del capitán Don Silberio de Beyngoolea= Y en otra ocasion que entro el yngles en la ciudad de Panama, bajo de dicha ciudad al socorro della con plaza de alferes de Infanteria de la conpañia del capitán Don Gonzalo de Zavala del tercio del Maestro de Campo Don Silberio de beyngoolea, y despues sirvio de alferes reformado en el

presidio del Callao y en la Armada de Mar del Sur siendo general de ella Don Juan de Beyngoolea. Y asi bien tiene noticia han servido a su Magestad otros antepasados suyos especialmente uno llamado Pedro ybañez de la Renteria en tiempo del señor? Rey Don Fernando el Catholico y no save que por dichos servicios se les aya echo merced ezepto al dicho Pedro ybañez que siendo capitán con su navio a otro de turcos que llevaba apresado a un navio gallego y se lo quito y metio en el puerto de Alicante por lo cual el dicho capitán Pedro ybañez de la Renteria y sus descendientes despues? sus navios y carabelas que entrasen en dicho Puerto de Alicante fuesen libres de pagar el derecho que llaman del Mollaje la qual dicha cedula ha visto en poder del dicho Don Agustin ybañez de la Renteria escripta en pergamino su fecha? en la ciudad de Cordoba a quatro de noviembre del año pasado de mil y cuatrocientos y noventa años. Y asi mesmo save que el dicho Don Agustin ybañez ha obtenido en esta dicha villa de lequeytio los puestos de Regi-

dor y Alcalde de ella y ha sido diputado general de este dicho Señorío de Vizcaya. Y save que Don Pedro ybañez de la Renteria su padre y Juan Bautista de la Renteria su aguelo han obtenido los puestos de Regidor y de Alcalde en esta dicha familia y en la de Vilbao y tiene noticias que sus pasados gozaron de dichos puestos de Alcaldes y regidores..." BFAH, JCR4244/009.

Generalak eta kanpo-maestreak besteak beste dira. Familia honen merituak beste leku batzuetan aurkitu behar dira: administrazioan, zientzietan, literaturan, historian..., baina horietaz idatzi da. Ahaztu baino lehenago Jose Vicente kapitainak ere zertxobait egin zuen, esaterako Toloneko itsas-batailan parte hartuko zuen Alcón ontziarekin ingelesten kontra. Portzierto Auñamendi Eusko Entziklopedian irakurri dugu Toloneko bataila porrot ikaragarria izan zela armada espainol eta frantsesarentzat, baina ez da hori egia. Hauteskundeetan gertatzen den bezala inork ez du galtzen, denak dira irabazle.